



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2008KO EKAINAREN 4AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
Beñat Erezuma Arisketa jauna
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2008ko ekainaren 4an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

Gai zerrenda aztertzen hasi aurretik, Alkateak honako gai hau proposatzen du aho batez gai zerrendan sartzeko:

"Hiri-Hondakinak tratatzeko zerbitzurako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren onarpena, behar bada".

Berlaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute aipatutako gaia 11. Puntu modura zerrendatzea:

11.- Hiri-Hondakinak tratatzeko zerbitzurako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenaren onarpena, behar bada.-

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2008ko martxoaren 3an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

- **Otsailaren 28ko 2008/12 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aulkien alokairuagatik jarritako fidantzaren itzulketa.
- **Otsailaren 29ko 2008/13 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Egurra ateratzeko herri bideen erabileragatik jarritako bermearen itzulketa.
- **Otsailaren 29ko 2008/14 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.I.U. andreari, Mendieta 42 etxe ondoan dagoen txabola berriztatzeko baimena.
- **Otsailaren 29ko 2008/15 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F. andreari, Gorgana baseritik pabeloira bitarteko zanja egiteko baimena.
- **Martxoaren 4ko 2008/16 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko ekitaldian, Gernika-Lumoko Polikiroldegirako zenbait ajangiztarrei dirulaguntza.
- **Martxoaren 17ko 2008/17 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskadiko F. Polisarioaren 2008 urteko "OPORRAK BAKEAN" programak antolatutako haur sahariar baten bidaia ordaintzea, guztira 590,00 euroko kostuarekin.
- **Martxoaren 17ko 2008/18 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.L.E. jaunari, Mendieta 43 etxe atzeko partean 60 m2ko azalera gresa eta harria jartzeko lanetarako baimena.
- **Martxoaren 28ko 2008/19 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** "ABADETXE INGURU PUBLIKOKO URBANIZAZIO LANAK, 2. FASEA" lanen behin betiko bermea bueltatu eta lanak jaso aurretik, Udal Arkitektoak 2008ko martxoaren 6an burututako txostenean azaltzen diren akatsak zuzentzeko lanak burutu beharko dituela jakineraztea INCONOR S.L. enpresari, aipatutako txostenak jasotzen dituen balorazio eta konponketa epea kontutan hartuta, mantenu eta kontserbazio betebeharrak bete asmoz.
- **Martxoaren 31ko 2008/20 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Zabor Bilketa Zerbitzuaren 2008ko 1. Hiruhilabteko padroiaren onarpena.
- **Apirilaren 14ko 2008/21 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.R.F. andreari, Mendieta 44an kokatuta dagoen Gorgana baserriko korta aldean erdiko horma berria eta solairua eraiki, leihoak sortu eta hormak raseatzeko baimena.
- **Apirilaren 14ko 2008/22 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Hazienda batzordeak onartutako zenbait proposameneri buruzko ebazpena: 2008 ekitaldiko Gernika-Lumoko Polikiroldegirako zenbait herritarrei dirulaguntza; Francisco Ramón Atela Arana jaunarentzako, Epaitegietako prokuradorea, Francisco Javier Gamboa jaunak Udalaren aurka jarritako errekurtoa dela eta, 300 euroko probisioa onartzea 509/07 Prozedura arruntak ekartzen dituen gastuen ordainerako; Ibilgailuen baja dela kausa, 2008ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa; Euskadi Txirrindularitza Iraskundeak, aurkeztutako



Ajangizko Udala

dirulaguntza eskaera ezeztatzea; Minbiziaren Aurkako Bizkaiko Batzak aurkeztutako dirulaguntza eksaera ezeztatzea.

- **2008ko apirilaren 14ko 2008/23 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** GUZTIONA auzo elkarteari 1.000,00 euroko dirulaguntza ematea, herritarrek "Larregain" Sagardotegira egun pasa egiteko
- **Apirilaren 14ko 2008/24 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.M.Z. andreak egindako eskaera onartu eta 2007ko ibilgailuen gaineko zergaren familia ugarientzako laguntza ematea: 96,16 euroren %25 = 24,04 euro.
- **Apirilaren 18ko 2008/25 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** F.U.M. jaunari, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Ortuzar baserriko garajeko 30,75 m2ko erretila konpontzeko baimena.
- **Apirilaren 25eko 2008/26 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Y.J.M. andreak, Maloste 11, Ormetxe baserri ondoan, sutarako egurra pilatzeko borda bat eraikitzeko baimena.
- **Apirilaren 25eko 2008/27 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008 urte honetan, Kultur Etxeko barne ekipamendurako proiektua onartzea, guztira 23.503,10 euroko kostuarekin eta 2008 ekitaldian 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten bizkaiko udaletan kultur ekipamendu berriak sortzeko izango diren dirulaguntzen eskaera eta emakidari buruzko arautegi erregulatzaila jasotzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 11ko 26/2008 Foru Dekretua kontutan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntza eskatzea
- **Apirilaren 30eko 2008/28 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Emakunde-Emakumearen Euskal Institutoari, Busturialdeko herri txikien Emakume eta Gizonen arteko berdintasun Plana burutzeko dirulaguntza eskatzea, 2008 urterako onartutako dirulaguntza deialdia kontutan hartuta.
- **Maiatzaren 6ko 2008/29 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Joseba Andoni Lejarzegi Zubizarreta jaunari, Maderas Lejarzegi S.L. enpresaren ordezkari den einean, C.U.E. jaunaren Santiago Aresti basotik, (5. Poligonoko 45 eta 49 lurzatiak) egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako baimena
- **Maiatzaren 6ko 2008/30 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Joseba Andoni Lejarzegi Zubizarreta jaunari, Maderas Lejarzegi S.L. enpresaren ordezkari den einean, F.J.U. jaunaren Errotabarri basotik, (5. Poligonoko 58 lurzatia) egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako baimena ematea.
- **Maiatzaren 12ko 2008/31 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko maiatzaren 21a Asentzio eguna, Udallerri osorako jaiegun modura proposatzea.



Ajangizko Udala

- **Maiatzaren 16ko 2008/32 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Irisgarritasun plana betez, 2008 ekitaldian Mendietako plazako eskailerak, Herriko Tabernako sarrera, Kanpantxuko frontoirako sarrera eta Kanpanposanturako bidea egokitzeko lanak onartu, 12.154,00 euroko kostua onartuz
- **Maiatzaren 17ko 2008/33 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2008ko ekitaldian, Gernika-Lumoko Polikiroldegirako zenbait ajangiztarrei dirulaguntza.
- **Maiatzaren 19ko 2008/34 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Minusbaliotasuna dela kausa, motordun ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzak 4. Artikuluan, jasotzen duen salbuespena kontutan hartuta, salbuespena onartzea.
- **Maiatzaren 19ko 2008/35 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** ARTXUBE dantza taldeari 802,50 euroko dirulaguntza ematea.
- **Maiatzaren 21eko 2008/36 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** MAIER S. Coop. Industria hiri lurreko Urbanizazio Proiektua behin betiko onartu eta Barayazarra Intxausti jaunak eta Oar Ibarra andreak aurkeztutako alegazioei ezetza ematea, Urbanizazio Proiektuak Ajangizko indarreango Udal Arau Sorosgarriek 60. Artikuluan arautzen duena betetzen dutelako (urriaren 10eko 634/2001 Foru Agindua - 2002ko irailaren 19ko 179 zenbakidun B.A.O.).
- **Maiatzaren 22ko 2008/37 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2007ko ekitaldiko Ajangizko Udal aurrekontuaren likidazioaren onarpena.
- **Maiatzaren 23ko 2008/38 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.D.O.G. jaunak, Ajangizko 5. Poligonoko 102 eta 145 lursailetatik egurra ateratzeko herri bideen erabilerarako aurkeztutako bermearen itzulketa.
- **Maiatzaren 26ko 2008/39 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udala eta Eusko Ikaskuntzarten arteko lankidetzta hitzarmena onartzea, 2008 urterako proiektu honek suposatzen duen 4.000 euroko kostua onartuz.

3.- 2008 EKITALDIKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO ZERGAREN PADROIAREN ONARPENEA, BEHAR BADA.-

2008 urteari dagokion trakzio mekanikozko ibilgailuen errolda aurkeztuta, batzartutako zinegotzien aho batez ebazten dute:



Ajangizko Udala

Lehenengo.- 2008 urteko Trakzio menakizko ibilgailuei dagokion Zerga Errolda onartzea.

Bigarren.- Tributuei buruko Abenduaren 28ko 230/63 Lege Orokorreko 124. Atalak eta martxoaren 26ko 3/86 Tributuen Foru Arau Orokorreko 125.2 artikuluan araututakoarekin bat, irgarki honek Trakzio Mekanizko Ibilgailuen gaineko zergari dagokionez zergapekoei zuzendutako jakinerazpen kolektiboaren ondorioak izango ditu.

Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera hamabost (15) eguneko epean, errolda jendaurrean arkezten da, interesdunek errolda aztertu eta bidezko deritzaten alegazio edo erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.

Epe hori igarota erreklamaziorik aurkeztu ezean, errolda behin betiko onartutzat joko da.

Non. Noiz eta nola ordaindu

.- Borondatezko ordainketa, gaoinordainik gabekoa.

a) Epea: 2006ko uztailaren 1etik 31ra (bi egun horiek barne)

b) Non eta nola ordaindu: Domiziliatu gabe dituzten zordunek, Banketxetan edo udaletxean jendaurreko ordutegian ordaindu dezakete, dagozkien inprimakia aurkeztuz. Zergadunek ordainagiriak banketxetan helbideratu dezakete.

Inprimakiak jaso ez izana edota ordainagiritan akatsen bat egoteak ez du ordaindu beharra salbuesten

Borondatezko epea igarota ordainketa burutuko ez balitz, premiabidez kobratzeari ekingo zaio, Bilketarako Erreglemendu orokorreko 95 eta 96 artikulua aplikatuz, %20ko gainordainaz, berandutze interesak, gastuak eta kostua gehituz.

Indarreango xedapenen arabera, zerga honen ordainketa gauzatu ezean, ezin izango da ibilgailuaren alta, baja zein eskualdaketarik egin.

4.- 2008 EKITALDIKO AURREKONTUAREN 1/2008 ALDAKETAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2008 aurrekontua aldatu beharra ikusi du, Mentzetara doan landabidea egokitzeko lanen I. faseak sortutako kostuei aurre egiteko; hori dela eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da dudiruzaintzako gerakinaren gain.

GEHITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A INCREMENTAR	KOPURUA CUANTIA
---	----------------------------



Ajangizko Udala

511.62211	47.243,36 €
GUZTIRA / TOTAL	47.243,36 €

GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A DISMINUIR	KOPURUA CUANTIA
Remanente líquido de tesorería	47.243,36 €
GUZTIRA / TOTAL	47.243,36 €

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Kreditu gehiketaz egindako 1/2008 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

Bigarren.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

Hirugarren.- Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Laugarren.- Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

5.- AJANGIZKO UDALEKO 2007 EKITALDIKO KONTU OROKORREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak araututakoa betez, Ajangizko Udaleko 2007ko kontu orokorrak jendaurrean aurkeztu (2008ko maiatzaren 7ko 86 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) dira.

Jenduarreko epean inolako alegazio ezta erreklamaziorik aurkeztu ez dela kontutan hartuta,

Udal Osoko Bilkurak, batzartutako ziengotzien aho batez ebatzen du:

2007ko Udal Aurrekontuko Kontu Orokorrak onartzea.

6.- HILERRIKO LANAK DIRELA ETA, AJANGIZKO UDALA ETA NORTEN PREFABRICADOS DE HORMIGON S.L. ENPRESAREN ARTEKO ZORRAREN LIKIDAZIOA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

Ajangizko Hilerriko lanek sortutako egoera konpondu nahian, Ajangizko Udalak 1995eko abenduaren 14an ospatutako Osoko Bilkuran honako akordio hau onartu zuen, INPARKING eta BILBANOR enpresekin batera:

Ajangizko Udala hilerrian burututako lan guztien jabe bakar bilakatzen zen, eta 1995eko urriaren 1etik aurrera burutzen ziren nitxo eta panteoi guztien kontzesioagatik jasotako dirua honela banatzen zen:

- BILBANOR	%42
- UDALETXEA	%30
- INPARKING	%28

1995eko abenduaren 18an, INPARKING enpresak POSTENSA S.A. enpresaren alde egindako endoso diligentzia onartzen da. Honen arabera, INPARKINGeri dagozkion %28aren %70-a POSTENSARI ordaindu behar zaio, 4.233.622 pezetarainoko kopurua lortu arte.

2000 urteko ekainean, POSTENSA enpresa NORTEN PREFABRICADOS DE HORMIGON S.L. enpresaren parte izatera psatzen da, kreditutako dokumentazioak argitzera ematen duenez.

Gaur egun Udalak NORTEN enpresarekin duen zorra 2.153,20 eurokoa da, eta enpresako arduradunek Udalarekin batera, zor hori kitatzeko asmoa azaldu dute.

Adierazitako gutzia kontutan hartuta, Alkatetzaren proposamena aintzat hartuz, Osoko Bilkurak batzartutakoen aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Ajangizko Udala eta NORTEN PREFABRICADOS DE HORMIGON S.L. enpresaren arteko zorra kitatu eta 2.153,20 euroko ordainketa egitea.

Bigarren.- Alkatetza beharrezko tramitazioak burutzeko ahalmentzea.

7.- AJANGIZKO KULTUR ETXEKO LANEN II. FASEKO BERMEAREN ITZULPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Kultur Etxeko lanen II. Faseko berme epea igaro dela eta, CONSTRUCCIONES MALAXETXEBARRIA ANAIK S.L. enpresak 2007ko maiatzaren 11an aurkeztutako behin betiko bermearen itzulketa eskatzen du 2008ko apirilaren 30ean aurkeztutako idatzian (252 sarrera zbkia.)

2007ko maiatzaren 10ean ospatutako Gobernu Batzordeko bileran, Udalbatzak Abadetxea Kultur Etxe bilatzeko lanen II. Fasearen adjudikazioa Construcciones Malaxetxebarria S.L. enpresari ematea onartu zuen.



Ajangizko Udala

Behin betiko adjudikazioaren ondorioz eta Administrazio Publikoen Kontratuak arautzen dituen legediaren arabera, esleituak adjudikazio prezioaren %4ko bermea jarri zuen, Udaletxeko bankuko kontu korrontean 8.645,17 euro ingresatuz.

Udal teknikariak egindako txostenaren arabera, Abadetxea Kultur Etxe bilakatzeko II. Faseko lanak behar bezala burutu ziren eta eraikuntzaren gaur eguneko egoera egokia dela kontutan hartuta, ez dago bermea itzultzeko inolako arazorik.

Hau guztia kontutan hartuta, Udal teknikariak egindako txostenean oinarrituta, Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez, EBAZTEN DU:

1.- Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak aurkeztutako eskaera kontutan hartuta, Abadetxea Kultur Etxe bilakatzeko lanen II. Faseko lanek sortututako betebeharrei aurre egiteko jarritako zortzi mila seirehun eta berrogeita bost euro eta hamazazpi zentimoko (8.645,17 €) behin betiko bermea itzultzea.

2.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

8.- MENTZETARA DOAN LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN I. FASEKO AZKEN ZIURTAGIRI ETA LIKIDAZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2007rako landabideen inguruko planaren barruan, Bizkaiko Foru Aldundiari Mentzetara doan landabidea egokitzeko I. faserako laguntza eskaera egin zion.

Otsailaren 8ko 1008/2007 Foru Aginduaren bitartez, 2007 urteko landabideen inguruko plana burutzea onetsi zen, besteak beste Ajangizko Udalari 36.000 euroko dirulaguntza onartuz.

Lanak Construcciones Morga S.L. enpresak burutu ditu, Humberto Fernández Pascual udal Arkitekto aholkulariaren zuzendaritzapean.

2007ko Landabideen konponketa lanei dagokionez, udal teknikariak 2. eta azken ziurtagiri modura aurkeztu duen ziurtagiriak, 88.552,36 euroko kopurua onartzen du, Mentzeta auzorako bidearen I. faseko konponketa lanen exekuzioko kopuru modura.

Construcciones Morga S.L. enpresak halaber, 88.552,36 euroko 2008ko maiatzaren 8ko 2304 zenbakidun faktura aurkeztu du Udaletxean burututako lanen 2. Ziurtagiri modura.

Aurkeztutako ziurtagiria kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak, batzartutako aho batez ebazten du:

1.- Mentzeta auzorako landabidearen 1. Faseko konponketa lanen bigarren eta azken ziurtagiria onartzea, guztira 88.552,36 euroko kostua onartuz.



Ajangizko Udala

2.- Construcciones Morga S.L. enpresak aurkeztutako 88.552,36 euroko 2008ko maiatzaren 8ko 2304 zenbakidun faktura onartzea. Fakturaren ordainketa, bidean egin beharreko zuzenketak burutzean egingo da.

3.- Onarpen honen berri Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko Nekazaritza Garapen Zerbitzuari ematea.

9.- AJANGIZKO TOPONIMIA BILDU, SAILKATU, KOKATU, AZTERTU ETA FINKATZEKO AJANGIZKO UDALA ETA EUSKO IKASKUNTZAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN BERREZPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Ajangizko Udalak Eusko Ikaskuntzarekin batera, 2008 urterako prestatutako Ajangizko toponimia bildu, sailkatu, kokatu, aztertu eta finkatzeko proiektua martxan jarri zuen. Proiektu honen helburua, Ajangizko toponimia jaso ahal izateko beka bat sortzea da, 2008 urtean zehar lan hori burutu eta hurrengo ekitaldian argitaratu ahal izateko.

Lanak Eusko Ikaskuntza eta Udalak bultzatuta, Euskaltzaindiaren zuzendaritza izango du.

Aipatutako proiektua udal aurrekontutan aurreikusita dagoela kontutan hartuta, Ajangizko Udala eta Eusko Ikaskuntzaren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartu zen (2008ko maiatzaren 26ko 2008/39 Alkate Dekretuz).

Hitzarmena joan zen ostiralean, maiatzaren 30ean sinatu zen Udaletxean, Alkatea eta Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko Lehendakariordea den Jon Kortazar Uriartek sinatuta. 2008 urterako dagoen proiektuaz gain, hurrengo urtetan ere Udala eta Eusko Ikaskuntza euskeraren aldeko ekintzak aurrera eramateko lankidetzaren mantentzeko konpromisoa hartu zen.

Aipatutako guztia kontutan hartuta, Alkate Dekretua eta hitzarmena bera berrezpenerako aurkeztuta, Udal Osoko bilkurak batzartutakoen aho batez onartzen da.

10.- AJANGIZKO UDALA ETA BUSTURIALDEKO HEDABIDEAK S.L.REN ARTEKO HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak Busturialdeko Hitzarekin hitzarmena sinatzeko proposamena azaltzen du. Udal aurrekontuak onartzerakoan azaldu zenaren arabera, egunkari honi laguntza ematean, herriari informazioa emateaz gain euskera bultzatzea ere bilatzen da. Hitza euskaraz idatzitako aldizkaria izateaz gain eskualdeko informazio zuzena ematen duela aipatzen du.

Dirulaguntza horrekin gainera, Ajangizerako bost harpidetza lortuko lituzke, baita Ajangizko Udalari publizitatea ere ematea ekintza jakinetan: jaiak...

Hitzarmen honen bitartez Udalak 1.200 euro ordainduko dizkio Hitzari 2008 urtean.



Ajangizko Udala

Aipatutakoa kontutan hartuta eta hitzarmena botaziora aurkeztuta, bertaratutako ziengotziek aho batez onartzen dute:

Lehenengo.- Ajangizko Udala eta Busturialdeko Hedabideak S.L.ren arteko hitzarmena onartzea.

Bigarren.- Alkate Udalburua hitzarmena formalizatzeko beharrezko tramite guztiak burutzeko ahalmentzea.

11.- HIRI-HONDAKINAK TRATATZEKO ZERBITZURAKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, hiri-hondakinen kudeaketari dagokionez, iraunkortasunera bideratutako kudeaketaren alde egin nahi dute.

Erakunde bien iritziz, hiri hondakinen tratamendua kudeatzerakoan beharrezkoa da ingurumenean eragin negatiborik ez egoteko aurreneurriak hartzea eta ingurumena babesteko mailarik handienak erabiltzea, indarrean dagoen araudia eta garapen iraukorren printzipioak bete ahal izateko.

Bizkaiko Hiri Hondakindak kudeatzeko 2005-2016 II. Plan Integrala abenduaren 16ko 10/2005 Foru Arauak onetsi zuen eta 2016 urterako lehen mailako hondakinik eta hondakin gordinek batere ez isurtzea izango da Bizkaiko hiri honakinen kudeaketarako planaren helburu estrategikoa.

Helburu hauek aurrera eramateko eta Administrazio maila desberdinek duten erantzunkizuna koordinatu eta elkarlanean aritzeko, hiri-honakinak tratatzeko zerbitzurako Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea proposatzen da.

Lankidetzaren hitzarmena botaziora aurkeztuta, batzartutakoek aho batez onartzen dute:

1.- Hiri-honakinak tratatzeko zerbitzurako Ajangizko Udala eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

2.- Hitzarmena formalizatzeko beharrezko tramiteak burutzeko Alkate Udalburua ahalmentzea.

3.- Ebazpen honen berri Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailari ematea.

12.- ERREGU ETA GALDERAK.-

Alkate Udalburuak, gaur egun Udaletxean martxan dauden zenbait gaien azalpena emateari ekiten dio:



Ajangizko Udala

- **Maier-Mendieta landabidea:** aurton lehenengo faseari ekin zaio. Fase hau Arganako kurtzea baino pixka bat beheragoraino heltzen da eta guztira 600 metro inguru hartzen ditu. Fase honen aurrkontua 172.835,81 eurokoa da eta Bizkaiko Foru Aldundiko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Saisetik 68.902,33 euroko dirulaguntza lortu da. Proiektuaren kostuari gainera lurren jabetzarako kostua ere gehitu behar zaio, gutxi gora behera 15.500 euro.

Akateak azaltzen duenez, bidea 4,5 metrora zabalduko da eta bertatik oinezko asko ibiltzen direnez, bide gorri bat marrazteko asmoa dago oinezkoak nolabait babesteko.

Etxeandia jaunak, bide guztian zehar bide gorria sortzea komeniko litzatekela aipatzen du, bide horretatik gero eta oinezko gehiago eta gero eta kotxe gehiago bait dabiz.

- **Mentzetarako bidea egokitzeko lanen II. Fasea:** Proiektuaren II. Fase honen aurrekontua 149.000 eurokoa da gutxi gora behera eta horretarako Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak 23.400 euroko dirulaguntza onartu dio Ajangizko Udalari. Lanon zuzendaritza Igor Madariaga jaunak eramango du eta fase honetan ez da espropiaziorik aurreikusten. Lanak hasi orduko halere, mugakide diren jabeekin batzar informatibo bat egiteko asmoa dago.

- **Rotonda:** Bizkailurrek egindako etxeen habitabilidaderako akzesoa eta argi transformadorea jartzea falta da. Rotondaren proiektua Bizkailurrek egin du eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan Sailak 360.000 € jartzeko konpromesua hartu du; horren ordez Udala bide zati honen jabe egin behar da. Hasiera baten Foru Adlundiak lanak udalak zuzentzea proposatu badu ere, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatuko zaio ardura hori eramatea, udalak baino baliabide tekniko eta pertsonal gehiago baitu.

Hau guztia aurrera eramateko, Serrako lurren jabetza edo disponibilitatea lortu behar da, baina horretarako nahita nahiezkoa da proiektua Udalaren esku izatea. Aldunditik esandakoaren arabera, aste honetan bertan bidaliko omen dute proiektua Udaletxera.

Honekin ba, 2008 urte honetan lanak hasi aurreko tramite guztiak burutu eta lanak 2009 urtean burutzea espero da.

- **Bizkailurreko etxebizitzak:** Alkateak aipatzen duenez, Bizkailurreko buruak etxebizitzaren prezioari buruz hitzegiteko Udaletxera deitu zuen. Udal pleguetan etxebizitzaren prezioa 144.075,00 eurotan zehazten zen gehienez, prezio horretan etxebizitza, garaje eta trasteroak barne sartuz.

Bizkailurrekin sinatutako hitzarmenean berriz, 2. Eranskineko hirugarren atalean etxebizitzaren gehieneko salneurriak zehaztean salneurriak lehen eskualdeketa honela kalkulaturiko direla aipatzen du: etxebizitzaren edo datxekionaren azalera erabilgarriaren metro karratua bider zenbateko unitario honeek, BEZ barik: Etxebizitza --- 1.695 €/m²



Ajangizko Udala

Beraiek prezio hau etxebizitza, garaje eta trasteroen metro karratu erabilgarrien baturari aplikatzen zioten. Honen ondorioz, Udaletxeak finkatutako prezioak eta beraien proposamenaren arabera suertatzen ziren prezioaren arteko diferentzia 800.000 eurokoa da.

Azkenik Udalak finakatutakoa onartu zuten, prezioa lehengoan mantenduz, hemedik aurrerako hitzarmenak zehatzagoak izango direla aipatuz.

- **Irisgarritasuna:** 2008 urtean Kanpantxuko frontoiaren sarrera, Mendietako plazako eskailerak, Herriko Tabernako sarrera eta Kanposanturako bidea konpontzeko asmoa dago, guztira 12.154,00 euroko aurrekontuarekin. Lan horiek egiteko Bizkaiko Foru Aldundiko Udala Harremanen eta Herri Administrazioaren Sailari dirulaguntza eskatu, eta 8.370,04 euroko laguntza onartu du.

- Roman Etxeandia zinegotzi jaunak, Guztiona Auzo Elkarteari eman zaion dirulaguntza dela eta, argi utzi nahi du ez dagoela inolaz ere dirulaguntzaren kontra, baina elkarte hori behar bezala legalizatuta dagoen galdetzen du, bestela subentzioa ez baita legala. Alkateak gaia aztertuko duela aipatzen dio.

- Etxeandia jaunak bestalde, Serreriako negoziazioa zelan doan galdetzen du.

Alkate jaunak jabeekin hitzegiten ari dela aipatzen du eta proposamen desbedinak mahaigaineratu direla:

1. solarra
2. eraikitako lau pisu
3. solarra babespeko etxebizitzekin

Udalari babespeko etxebizitzak eraikitzea gustatuko litzaioke, gehienez 187.000 euroko prezioan gutxi gora behera eta gainera 480.000 euro ere jasotzea frontoia egin ahal izateko. Beraiek bestalde doble VPO proposamena aurkezten dute, baina proposamen hori legezkoa den aztertu beharra dago.

Azken finean oraindik ez da ezer zehaztu. Jabeek eraikuntzarako momentu txarrak direla aipatzen dute... baina hori Udalari ez dagokion gaia da, Udalak azken baten udalerrirako proposamenik egokiena bilatu nahi baitu.

Berrogeita lau garajez ere hitzegin da, etxebizitza bakoitzak garaje bat izan ezker bi edo hiru udalarentzako izango lirateke. Gero kanpoan ere hogeita bat aparkaleku sortuko lirateke, sortu beharreko eskoilerarekin ere kontuz euki beharko dutela, jardineriaren mantenimenduaz ere hitzegin da... baina guzti honek aurretik proiektu bat aurkeztu beharra dakar, eta aurkeztu bitartean horretaz ezin da ezer zehaztu.

Etxeandia jaunak 480.000 euro eta lau piso lortzeak konpentsatzen duen galdetzen du.

Uribarri jaunak etxebizitzak segun nolakoak diren jakin behar dela dio, libreak balira bai.

Carbonell jaunak etxebizitza horiekin gazteei ere aukera ematea espero dela aipatzen du.

- Roman Etxeandia jaunak Kanpantxuko argindarra zein egoeratan dagoen galdetzen du.



Ajangizko Udala

Carbonell jaunak, proiektua burutzeaz arduratuko den ELECNOR enpresa datorren astean topografoarekin etortzeko geratu dela aipatzen du.

Etxeandia jaunak jabe guztiak konforme dauden galdetzen du.

Alkateak bat izan ezik beste danak proiektua egiteaz konforme agertu direla aipatu du. Proiektua eginda dagoenean ikusiko da argindarra nondik nora doan; Iberdrolak ere parte hartuko omen du lanen parte batean... baina ezer zegaztu orduko lehenengo proiektua egin behar da.

Etxeandia jaunak proiektua nork agindu duen galdetzen, jabeek agindu dutela erantzuten du Carbonell jaunak.

- Bizkailurrek egindako etxeak noiz entregatuko diren galdetzen du Roman Etxeandia jaunak.

Alkateak, laster entregatzeko direla dio, argindarraren arazoa eta akzesoa konpontzen duten momentuan.

- Etxeandia jaunak UE2ko hiru txaleten urbanizazioa zertan geratu den galdetzen du.

Urbanizazioa hiru etxeek egin behar dutela aipatzen du Carbonell jaunak, baita urbanizazioa udaletxera pasa aurretik udal arkitektoak ondo dagoela ziurtatu behar duela ere. Jabeek diotenez, lurra erosi zutenean udalarekin hitzarmen bat zuten Bizkailurren mugatik euren berjarainoko urbanizazioa ordaintzeko. Dena den tramo hori publikoa den edo ez ikusi beharko da, eta Udalari ordaintzea badagokio. Horrez gain, bide generaletik gora doan bidea ere itxi egin nahi dute, baina udalak ez du prioridade modura, oraingoz behintzat.

- Etxeandia jaunak frontoiarekin zer pasatzen den galdetzen du.

Carbonell jaunak helburu modura frontoia Kultur Etxe ondoan eraikitzeke anteproiektu bat agintzea duela aipatzen du. Ideia orotarako gune estali bat eraikitzea da. Careagaren estudioarekin hitzegin da baina ez dago ezer itxita. Lehenengo proiektuak zenbat kostatuko duen, eraikuntzak zein diseinu izango duen... erabaki behar da, beti ere Elizaren altuera errespetatuz eraikuntza berria bere inguruarekin integratu dadin.

- Etxenadia jaunak berriro ere Uruburu baserriko potzu septikoak sortzen dituen arazoen berri ematen du.

Angel Luis Uribarri jaunak Partzuergoko gerentearekin batzartu zela erantzuten dio, batzar horretan Uruburu eta Beitiako arazoak aipatu zizkiola. Gerenteak hamabost egun eskatu zizkion egoera aztertzeko, baina berriro ere deitu beharko diola gaia gogorarazteko.

- Jasone Bernaola zinegotzi andreak Maiarren bideko egoera txarra aipatzen du.



Ajangizko Udala

Carbonell jaunak Mentzetako bideko lehenengo fasea asfaktatu zenean bide horretako batxeak ere asfaltatu zirela dio, eta batxe berriak sortu direla. Kontutan hartuko direla.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko hamarrak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA